




EAEko ekonomiaren termometroa 95,8an kokatu da

EAEko ekonomiaren termometroa

Indizea




Iturria: Ekonomia Zuzendaritza.

EAEko ekonomiaren termometroak 95,8ko balioa hartu zuen otsailan, aurreko hilean lortutako emaitza baino pixka bat beherago. Hala ere, hazkunde sendoko eremutik hurbil mantentzen da, zerbitzuen sektorearen jardueraren hazkundeari esker, EAEko ekonomiaren bultzatzaile nagusia izaten jarraitzen baitu.

Urtarrilean 328 enpresa eratu ziren EAEn

EAEn eratutako enpresak

Urte bakoitzeko urtarrila



Iturria: INE.

INEk berriki argitaratutako informazioaren arabera, **aurtengo lehen hilabetean 328 enpresa eratu ziren Euskadin, aurreko urteko hilabete berean baino %1,9 gehiago**. Balio hori 2014tik urtarril batean lortutako altuena da. Halaber, esan behar da jarritako kapitala 21 milioi eurotik gorakoa izan zela.



Txikizkako merkataritzak %3,5 goratu zuen salmenta

EAEko txikizkako merkataritza
Urte bakoitzeko urtarila. Indizea




Iturria: INE.

INEk argitaratutako informazioaren arabera, **urtarrilean Euskadiko txikizkako merkataritzaren salmentak %3,5 gehitu ziren, aurreko urteko hil beraren aldean**. Jardueraren aurrerapen horrekin batera, enpleguak hobekuntza nabarmena izan zuen, urte batetik bestera %1,0 hazi baitzen.

KPI indizea %3,3ra jaitsi zen otsailean EAEn

Euskadiko KPI indizea
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: INE.

INEk argitaratu duenez, **otsailean kontsumoko prezioak %3,3 igo ziren Euskadin, 2024ko hilabete berarekin alderatuta**. Beraz, urtarilarekin konparatuta bi hamarren jaitsi da. Orobat, azpiko inflazioa, energia eta elikagai freskoak kontuan hartzen ez dituenaz, puntu erdi murriztu zen, eta orain %2,4an dago.